


ELKARTEAK

Egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa dugu beste elkarte batzuekin harremanetan jartzea, gure proiektuaren oinarriak baitira. Hori horrela izanik, lanketa sakon baten ostean, bereziki herriko udalarekin eta denda zein tabernekkin harremanetan jartzea erabaki dugu; bakoitzak proiektua aurrera eraman ahal izateko bere aletxoak jarritz.

Udalaren laguntza beharrezkoa izango dugu egitasmoa martxan jarri ahal izateko, diru-laguntzei dagokienez bereziki. Hasiera batean, proiektua herritarren artean zabaltzea izango da helburua, nolabait hauek honen berri izan dezaten. Horregatik, udalarengandik jasotako diru-



laguntzak egitasmoaren publizitatera bideratuko ditugu; beharrezko materialak erosi, webgunea sortu, eta abar. Izan ere, honek funtziona dezan ezinbestekoa dugu herritarren artean zabalduta egotea, proiektua martxan jartzeko beharrezkoak direlako.

Udalaz gain, herriko komertzio txikiekin harremana ezinbestekoa da, hauek baitira egitasmoak eskaintzen dituen zerbitzu edota produktuen banatzaile. Hau da, herriko dendekin elkartu beharra dugu, egitasmoan parte hartzeko asmoa zeintzuk duten zehazteko. Denda hauek edozein merkatu motatakoak izan daitezke, hots, arropak, janaria, liburuak, oinarrizko produktuak (tanpoiak, konpresak, xaboia...) eta abar eskaintzeko prest daudenak. Behin parte hartzeko prest dauden komertzio txiki hauen zerrenda jasota, azken pausua, hauei egitasmoaren berri modu zehatzagoan ematea litzateke; proiektua martxan jartzeko azken detaileak zehaztuz. Horren ostean, proiektuari ekitea besterik ez litzateke faltako.